


## Hartza eta erlea



### HARTZA:

Eztiaren egarriz  
heldu naiz korrika,  
nahiz eta ez didazun  
zuk egin gonbita.  
Handia izateko  
behar naiz elika.  
Zure laguna naiz ta  
ez nazazu pika.

### ERLEA:

Ez nauzu engainatzen  
hainbeste komeriz,  
lapurtzera baitzatoz  
zu gezur gehiegiz.  
Gure erleontzira  
ez etorri berriz.  
Deabrutxo bat zara  
aingeru aurpegiz.

### HARTZA:

Zuk oraindik ez nauzu  
ondo ezagutzen.  
Esaten dudan dena  
duzu txarto hartzen.  
Eztirik ez hartzeko  
ez du inon jartzen.  
Eskean etorri naiz  
eta ez lapurtzen.

### ERLEA:

Egin dugun ezti  
da geuretzat jana,  
gose aurpegiz zatoz  
zeuk jateko dana.  
Lehenagotik dakigu  
alferra zarana,  
baina jan nahi baduzu,  
egin zazu lana.


### HARTZA:

Horrela hitz egiteko  
zer bitxo zara zu!  
Ia kokoteraino  
eginda naukazu.  
Duzun ezti guztia  
azkar emaidazu,  
erleontzia zutik  
euki nahi baduzu.

### ERLEA:

Niri bitxo ez deitu,  
harroputz kirtena!  
Nire etxean neu naiz  
agintzen duena.  
Mingain horretan sartzen  
badizut eztena,  
laster kenduko zaizu  
ezti gose dena.

ZIHARA ETA OIHANE ENBEITA  
(10 eta 12 urte zituztela)



**1** Zer dela eta ari zaio hizketan hartza erleari?

---

**2** Zer dio erleak hartzaren eskabideaz?

---

**3** Markatu. Hurrengo adjektiboetatik zein erabiltzen ditu erleak hartzari buruz ari dela?

Handia.

Alferra.

Deabrutxoa.

Kirtena.

Gezurtia.

Harroputza.

**4** Zergatik ez dio eman nahi ezta erleak hartzari?

---

**5** Eman irakurgaiak ageri diren hurrengo hitzen euskal ordainak.

• Pikatu: \_\_\_\_\_

• Bitxo: \_\_\_\_\_

**6** Zer erabaki hartu du hartzak erlearen jarreraren aurrean?

---

**7** Zer-nolako mehatxua egin dio hartzak erleari?

---

**8** Eta zer erantzun dio erleak?

---

**9** Bertsoak irakurri ostean, zein iruditzen zaizu bietatik indartsuena? Zergatik?

---

**10** Azaldu. Zein da, zure ustez, bertso hauen irakaspena?

---